



3 EURITAN JOLASEAN Herriko zein parke estali erabakitzeko tailerrak asteotan

'Euritan ere jolasean' egitasmoa fase berri batean sartu da. Zenbait tailer egingo ditu herritarrekin Hiridunak estudioak, Udalaren laguntzarekin, euren iritziz herriko zeintzuk parke estali behar diren jakiteko. Datorren aste-rako bi saio prestatu dituzte: asteartean, urriak 4, Villa Mirentxun izango da hitzordua, 18:00etan. Ostegunean berriz, hilak 6, Landaberi-Garaikoetxean tailer bat egingo dute. Herritarrei deia egiten diete arduradunek, saio horietan parte hartzeko.



Udaleko hainbat ordezkari politikok eta Semblante Andaluzeko kideek ohorezko ardoarekin topa egin zuten astelehen arratsaldean, Aste Kulturalari hasiera emanez.

4-5 IX. MARATOIA Aurtengo erronka nagusia, 40 egun euskaraz

Berezia izango da Euskararen Maratoiaren aurtengo edizioa. 40 ordu ez ezik, 40 egun euskaraz egitea da erronka. Pello Jauregi ikerlaria ari da desafio hori gidatzen, herriko Euskara Zerbitzuarekin batera. Herritarrek ere parte hartze aktiboa eduki dezakete, bi modutara: izan daitezke 'Belarriprest', edo, bestela, 'Ahobizi'. 300 eta 3.000 behar dira, hurrenez hurren. Izena emateko epea zabalik dago oraindik; nahikoa da aldizkari honekin batera doan eskuorria betetzea. Gerora, erronkak utzitako datu, emaitza eta bestelakoak aztertuko dituzte.



Aste Kulturalan murgilduta

Okendo plaza izango da Semblante Andaluzen ekintzen bilgune asteburuan

Musika, dantza, bertsoak... ekitaldiz betetako asteburua daukate aurretik Semblante Andaluz elkarteko kideek. Okendo plaza izango da Aste Kulturalaren epizentro. Dena den, gaur arte ez dira geldi egon; ohorezko ardoarekin topa egin eta txapelketak jokatu dituzte.

Semblante Andaluzen ez da festa girorik falta inoiz, eta are gutxiago egunotan; Aste Kulturalan murgilduta dago elkarteak.

Egitarauko ekintza azpimarragarrienak gaurtik aurrera egingo dituzte, elkartetik atera eta Okendo plazara joanda: musika, dantza, bertsoak, andaluziar jakiak... ez da ezer faltako. Antolatzaileek gonbitea luzatzen diete herritar denei, eurekin batera ospakizunez gozatzeko.

Gaur arratsaldean, esaterako, astean zehar jokatu diren txapelketen -musa, tutea eta dardoak- sariak banatuko

dituzte Okendon, esan bezala. Segidan, Manolo Solis musikariaren doinuek dantzari jarriko dute herria. Gaurko festa, ordea, ez da horrela bukatuko: 23:00etan, Amigos del Sur taldeak eskainiko du emanaldia.

Biharko ere antolatuta dituzte hainbat jardura. Bote txapelketa, 12:00etan; gaztetxoaren jolasak ordu erdi beranduago; dantzaldi herrikoia, 17:00etan; Zambra, Gitanillas del Alba eta Duen-de taldeen emanaldiak, 19:00etan; eta gaua girotzeko, DJ Freddy-ren saioa, 21:30etik gaueko ordu txikietara arte.



Elkarteko hainbat kidek tute txapelketa jokatu zuten asteazken arratsaldean.

Jon Maia bertsolaria etzi

Etzi igandeko egitaraua ere ez da motz geratuko. Nabarmen-tzekoa da Jon Maia bertsolaria-riak 13:30ean eskainiko duen emanaldia. Hori baino ordu erdi lehenago, Semblante Rociero eta Xumela abesbatzak ariko dira. Indarrak bertze-ko, 14:30ean, paella goxoa bazkalduko dute bertaratuta-koek. Arratsaldeko 17:00etan,

'Tala y su Banda' taldeak joko du, eta, azkenik, dantzaldia egingo dute, 20:30ean.

Orain arteko ekintzak

Ospakizunak astelehen arratsaldean hasi ziren, elkartean bertan. Ohorezko ardoarekin topa egin zuten udal ordezkari-ek eta kideek. Bestalde, mus-tute eta dardo txapelketak ere jokatu dituzte atzo arte.

ADURIZ DE LASARTE, S.A.
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28 USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra
Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Berria!
Eka Studio
Yoga & Ongizatea
Zentru berria Lasarte-Orian
672 44 86 44
ekalasarate@gmail.com
Green Plaza, 1, 2. baxua

Neure kabuz



Asier Odriozola

Zirelako gara

Beste edozein mugari ere baleko izango litzateke baina gure kulturaren 25 urtekoak, 50 urtekoak eta 100ekoak ditugu erreferentzia. Landaberrik mende erdia egin du haurrak eta ez hain haur direnak eta ginenak hezitzen. Ospatzeko unea da eta errekonozimendua ere bai.

Esaera batek dio zirelako gara eta ikastolaren kasua hori da. Batzutan gauzak berez eta betidanik ditugula pentsatuz bizi gara baina gaur egun gozaten ditugun erakunde, elkarte, eskubide, babes eta onarpen gehienek iturri bat dute, jatorri bat. Landaberrik 50 urteko ibilia ospatu ahal izateko makina batek gogotik egin zuen lan hasiera haietan, guraso eta irakasle batez ere. Batzuk bi taldeetan zeuden, gure ama esaterako. Ikastetxea sortzeko asmoa eta hura gauzatzea ez zen egin diru-laguntzekin, gobernu baten sustenguekin eta legearen babesarekin. Oso bestela, klandestinitatearen itzalpean eta horrek berarekin duen xarmarekin eraiki zuten gaur egun mila baino ikasle gehiago bere baitan omen dituen Landaberri.

Adin bat bildu dugunok eta han ikasiak garenok uste dut harro esan dezakegula gure bizitzatiko aro hori esku onetan iragan genuela. Neska-mutiko bezela eta berdin akademikoki ondo prestatu gintuzten eta ez dugu gainerako ikastetxeetan ikasitakoekin alderatuta gabeziarik batere.

Orduko xarma lausotuta badu ere, bere handian, "neure" sentitzen dut Landaberri betirako, hamaika bizipen han bizitakoak ditudalako eta oroimenean arakatzan hasita une gozoak geratu zaizkidalako txertatuta.

Zorionak guztioi, bereziki hasierako bultzada egoera zailean eman ziotenei, eta ospatu merezi duen neurri berean.

Zorion agurrak



June

Zorionak sorgintxo! asko maite zaitugu!



Eneko

Zorionak rubio zure 8. Urtebetzean! Asko maite zaitugu, Ane, ama eta aitaxoren partetik!



Unax eta Beñat

Zorionak Piratak! Txokolatezko muxu goxoenak zuentzako. Aita, Ama eta Alain.



Oihane

Zorionak maitia zure 6. urtebetzean!!! Muxu handi bat aita, ama eta Iraideren partez.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 37 14 48,
txintxarri@txintxarri.eus edo
txintxarri.eus web orrialdeko
formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Pisua alokairuan Oztaran plazan. 3 logela, sukalde eta komun berritua eta igogailua du., Leiho guztiak kanpora ematen dute. Gerturatu eta ikusi, aukera paregabea. Prezioa adostu daiteke. Harremanetarako, 625 709 361, Marian.
- Garaje marra bat alokatzen da, Caddie plazan, Atsobakar auzoan, zahar-etxearen parean., Zabala da eta sarbide eroso du. 659 021 945.
- Hernaniko Saretxo-Txiki golf traspasatzen da. Aukera ona. 679 680 465.

Salerosketak

- Haur jaioberriarentzat 'Baby home dream' hondar koloreko sehaska txikia (100 euro) eta 'Cabriofox' Maxi Cosia (100 euro) salgai ditugu. Egoera oso onean daude. Aitor, 648 102 799.

Lan eskaintza

- Goiegi jatetxean astean ordu batzuk lan egingo lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzailerak: Euskalduna eta bezeroari arreta-zerbitzua emateko gogoia duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketako zenbait lan ere egin

beharko ditu. Interesa dutenek jate txerara hurbildu daitezela curriculumarekin.

Lan-eskaria

- Orduka etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Gehienez 6 ordu egunean. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 610 378 313.
- Emakume bat eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, ospitaletan gau zein egunez aritzeko, orduka ere bai. Asistente soziosanitario titulua dauka. 667 09 06 92.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lan edo haur, zein adinduen zaintza egiteko. Orduka, interna edo externa. Paperak ditu. 637 289 459.
- Euskara edo ingelesa irakasten dut. Ekonomikoa. 600 766 068.
- Emakumea eskaintzen da garbiketara lanak egin, adineko pertsonak zaindu edota interna moduan lan egiteko. Piedad Gomez. 632 754 243/652 917 797.
- Batxilergoko 2. mailako ikasle bat klaseak emateko eskaintzen da, DBH zein Batxilergoko Igo mailakoei. 633 527 379.

Jaiotzak

Jaiotzak

- Irati Puras Sanchez, irailaren 23an.
- Aiur Gonzalez Pulido, irailaren 23an.
- Izar Iparragirre Zelaia, irailaren 22an.
- Nora Del Campo Sasiain, irailaren 19an.



Heriotzak

- Raimundo Perez Arenal, irailaren 28an, 86 urte zituela.
- Marcela Ramos Arriba, irailaren 26an, 82 urte zituela.
- Pakita Intxausti Urruzola, irailaren 22an, 90 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 30 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 01 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 02 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 03 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteartea, 04 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 05 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Urrutia, Etxeberri auzoa I
Hernani, Tel.: 943 557738

Larrialdi telefonoak


Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre,
Iñigo Gonzalez, Maddi Noniega

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maidar Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

HIRIGINTZA

Parkeak estaltzeko hausnarketa

Herritarrek beharrak eta lehentasunak kontuan izango dituzte

'Euritan ere jolasean!' proiektuaren barruan, herritarrek zein eremu estali nahi dituzten erabakitzeke hiru tailer egingo dira aste hauetan. Asteazkenean izan zen lehenengoa eta auzo bakoitzean egon daitezkeen beharrak zehaztu ziren. Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatu nahi du ekintza honetan.



Hiridunak estudioko kideek azalpenak eskaini eta herritarrek haien iritzia eskaini zuten.

TXINTXARRI

Asteazken arratsaldean agure herriko hainbat parke estaltzeko lehen pausoa eman zuten hainbat herritarrek.

'Euritan ere jolasean!' proiektuaren lehen tailerrean, lehenik, proiektua aurrera eramango duen Hiridunak estudioko kideek parkeen moldaketa egiteko kontuan izan behar diren hiru oinarri azaldu zituzten: hiritargo antza, eguneroko bizitza eta espazio publikoa edo denontzako espazioak.

Era berean, uda baino lehen ikastolako haur eta gurasoei esker osatutako

Lasarte-Oriako parkeen diagnostiko aurkeztu zuten.

Honetan oinarrituta herrian dauden beharrak zehaztu zituzten Hiridunak taldeko teknikari eta herritarrek.

Hurrengo saioak

Hurrengo astean, beste bi tailer antolatu dira.

Asteartean, Lasarte-Oriako lehentasunezko beharrak aztertuko dituzte herritarrek. Saioa Villa Mirentxun izango da, 18:00etan.

Azken saioan lehentasunak kontuan izanik, zein gune estaliko diren erabakiko

da. Ostegunean, urriaren 6an, Landaberri-Garaikoetxea ikastolan egingo da tailerra.

Zalantzak

Proiektua aurrera daraman taldeak, Hiridunak estudioak euritanjolasean@gmail.com helbide elektronikoa du martxan herritarrek prozesuari buruz duten edozein zalantza argitzeko.

Parte hartzea

Lasarte-Oriako Udalak guttion onurarako proiektua izaki, herritarrei hurrengo tailerretara hurbiltzeko gonbita egiten die.

KATEKESIA

Arantzazuko Amaren elizako saioak

Urriaren lehenengo astean katekesiko kurtso berriari hasiera emango zaio Zumaburuko Arantzazu Amaren elizan.

Katekesiko arduradunek azaldu dutenez, lehen hezkuntzako lehenengo mailan dauden haurrek, 6 urte, izena eman behar dute, lehen Jaunartzea hartzeko beharrezkoak diren 3 urteak egiteko. Lehen saioa urriaren 11n, asteartean izango da, 18:00etan.

Lehen kurtso honetan izena emateko urriko bi lehen astelehenetan, 3an edo 10ean, arratsaldeko 20:00etan gerturatu daitezke interesatuak bulegora.

Gainontzeko taldeek hurrengo astean hasiko dute ikasturtea, Bigarren mailako gaztetxoek, hilaren 5ean, asteazkenean, eta hirugarren mailakoak, berriz, urriaren 3an, astelehenean. Saioak 18:00etan hasiko dira.

NAGUSIEN OMENALDIA

Ospakizunak hasiko dira bihar

Biyak Bat elkarteak Lasarte-Oriako Udalarekin batera antolatzen duen Nagusien Omenaldiko egitarauari hasiera emango zaio bihar arratsaldeko 16:00etan. Biyak Bat elkarteak egotzian bandera igoera egin eta agurra dantzatuko dute.

Ordu erdi geroago, Isla plazan, toka, igela eta pote txapelketak jokatuko dira. Izena emateko aukera dute interesatuek joko hasi baino lehen. 18:00etan, bingo lehiaketa izango da elkarteak egotzian eta 20:00etan, lehiaketa guztien sari banaketa.

Igandean, meza nagusiaz, Amaia Gonzalez Caballeroren emanaldiaz eta bazkariak gozatu ahalko dute herriko pertsona nagusiek.

Bazkarian izena eman dutenen artean, adinez zaharren diren emakume eta gizona omenduko dituzte eta 85 urtekoek oroigarria jasoko dute. Bazkal ostean, dantzaldia izango da 'Ruby Berriak' taldearen eskutik.

MUSIKA

Orfeón Logroñes abesbatzaren kontzertua bihar

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak gonbidatuta, bihar 19:30ean, Orfeón Logroñes abesbatzak kontzertua eskainiko du Ama Brigitarren komentuan. Eliz abestiak eta polifonia doinuak entzun ahalko dituzte kaperara hurbiltzen diren herritarrek. Hainbat abestietan bakarlarrien ahotsaz gozatu ahalko da, baita pianoaren doinuez ere.

Urteurreneko ospakizunak amaitzear

Ipuin kontaketa berezia, kirolari profesionalen bisitak eta antzerkia horiek dira aste honetan zehar Landaberriko 50. urteurreneko ekintzak.

Astelehenean, LH5 eta 6 mailako gaztetxoekin prestatutako ipuinak entzun zituzten Villa Mirentxun bildu ziren haur, zein helduek. Euskaraz, mongolieraz, Brasilgo portugesez eta arabieraz kontatu ziren ipuinak.

Bea Egizabal eta Cesar Marcosen saiotxoa ere izan zen.

Kirolarien bisita

LHko lagunek, berriz, asteartean Errealeko Iraia Iparragirre eta Ander Bardaji jokalariekin eta Asier Arteaga pilotariekin solasteko aukera izan zuten.

Honen harira aipatzekoa da, lehenengo astean DBHko ikasleek olimpiar txapeldun baten bisita sorpresa jaso zuten. Maialen Chourraut Landaberriko ikasle ohia herrian zela baliatuz, gazteekin bildu zen eta haren esperientzia azaldu zien.



Ipuin-kontalari saio berezia izan zen astelehenean. Asteazkenean, haur eta helduek ederki gozatu zuten 'Biolin magikoa' antzezlanaz. Bi ekintzetan herritar ugari bildu zen.

Asteazkenean, Biolin magikoa antzerkiak ederki gozatu zuten Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren haur eta gaztetxoek.

Antzerkia eta bazkaria

Baina ez dira ekitaldiak amaitu.

Gaur, 22:00etatik aurrera, ikasle ohiek prestatutako 'Landaberri mende erdi'

antzezlanaz gozatuko dute Manuel Lekuona kultur etxera hurbiltzen diren lagunak.

Ikastolako lehen urteetan bizitako esperientziak gogora ekarriko dituzte.

Sarrerak saioa hasi baino ordu bete lehenago izango dira eskuragarri Manuel Lekuonan.

Bazkaria

Bihar, berriz, egun handia izan-



go da. Belaunaldi ezberdinetako kideak bilduko baitira Michelingo frontoian egingo den bazkarian.

Ostean, ekitaldi berezia izango da sorpresaz bete eta Ttiriki Ttarraka taldearen emanaldia ere izango da.

Aurretik, 12:00etan, Landaberri BHIIn urteurreneko kantaren bideoklipa grabatuko dute eta ostean, Musika Eskolako

kideekin batera kalejira egingo dute.

Erakusketa

Era berean, Landaberri ikastolako kideek gogoratzen dute 'Landaberri, oroimenaren basoa' erakusketa ikusteko azken eguna bihar izango dela. Beraz, oraindik hurbildu ez diren lagunak azken egunak dituzte hauek.

“Hizkuntza ohitura aldatzea, kontu kolektiboa da”

Pello Jauregi ikerlaria ari da 40 eguneko erronka gidatzen Euskara zerbitzuarekin

40 eguneko erronkaren azken helburua, Pello Jauregik azpimarratzen duenez, euskararen erabilera hedatzeko proposamen sendo, ongi argudiatuta eta praktikan emaitzak ematen dituen prestatzea da. Aktibazio kolektiboa lortu nahi denez, beharrezkoa da lotzea Ahobizi bezala herrian euskaraz hitz egiteko gai diren %6 eta euskaraz ulertzen dutenen %30 Belarriprest bezala. Herritarrek oraindik badute aukera erronka honetan parte hartzeko atxikita doan eskuorria beteta.

40 eguneko erronkarekin elkarbanatzen ari da protagonismoa Euskararen bederatzigarren Maratoia. Asko dira urriaren 23tik aurrera erronkari helduko dioten herritarrak. Hala ere, belarriprest gehiago behar dira. Erronka hobeto ulertzeko Pello Jauregik azaldu digu ekimen honen atzean dagoen ikerketa.

Zergatik eta nola sortzen da Lasarte-Orian ‘baietz 40 egun euskaraz’ erronka?

Urtarrilean herriko euskalgintzako 13 erakunde elkartziren (ikastetxeak, ikastola, guraso-elkarteak, euskaltegiak, bertso-eskola, euskara elkarteak eta euskara zerbitzua, besteak beste) Euskararen Maratoia abiatzeko asmoz. Bertan ikusi zuten Maratoiak, jai giroaz gain, erronkaren izpiritua berreskuratzea behar zuela, euskalgintzak herrian aurrerapauso kualitatiboa egitekotan. Eta horrela sortu zen “40 ordu ez ezik, 40 egun euskaraz” erronka.

Aspaldiko harremana duzu herriko euskara batzordearekin. Zenbat denbora da herriko euskal komunitatea aztertzen duzula? Ondo ezagutzen duzu gure herrian euskararen bilakera zein izan den...

Ttaku sortu aurretiko Euskararen Aldeko Taldearekin jada harreman estuak nituen. 1999. urtean, Kuadrillategi egitasmoa zuzendu nuen. 2002. urtean “Euskara eta gazteak Lasarte-Orian” ikerketa egiteko eskatu zidan Euskara Batzordeak. 10 urte beranduago, 2012. urtean, berriz egin nuen ikerketa antzerakoa, Lasarte-Oriako gazteen hizkuntza egoera eta

bilakaera aztertzea jomugan genuela.

Erronkaz haratago ikerketa bat da hau. Nola diseinatu eta aztertuko da prozesua?

Erronkak berak berez eskatzen zuen erronkari heltzerakoan hartutako konpromisoak bete diren ala ez jakiteko neurketa sistemaren bat. Ikerketak aukera emango digu zehaztasun eta sakontasun handiagoarekin ezagutzeko zer lortu dugun eta zergatik izan den hori guztia. Funtsean, hiru “argazki” atera nahi ditugu. Argazki bakoitzak hizkuntza portaerari buruzko hainbat informazio eman beharko liguke. Lehenengo “argazkia” erronkari heldu aurrekoa izango da. Bigarren “argazkia”, erronka bukatu berritan jasotakoa.


Eta, azkenik, hirugarren “argazkia”, erronka bukatu eta handik hiru bat hilabetera egindakoa. Jakin nahi dugu ea erronka benetan eraginkorra izan den jendearen hizkuntza portaera aldatzeko eta ea aldaketa horrek denboran zehar ere irauten duen. Ahobizi eta Belarriprest gisa jardungo dutenei eskatutako datuekin (galdetegien bidez) osatuko digu informazio guztia.

Zein da ikerketa honen azken helburua?

Euskararen erabilera hedatzeko proposamen sendo, ongi argudiatutako eta praktikan emaitzak ematen dituen prestatzea. Bestalde, gure esperientzia ahalik eta zehatzen dokumentatzea, euskal komunitate osoari eskaintzeko.

3.000 belarriprest eta 300 ahobizi lotu nahi dira. Zergatik jarri dira kopuru hauek?

Aktibazio kolektiboaz hitz egi-



Pello Jauregi udaleko euskara batzordearekin ari da elkarlanean.

ten ari bagara, horrek esan nahi du masa kritiko jakin bat behar dugula abiatu kalean ekintzaren eragina ikusgarri izan dadin. Oraingoan, era intuitiboan, finkatu dugu Ahobizien herrian euskaraz hitz egiteko gai diren %6 izatea, eta euskaraz ulertzen dutenen %30a Belarriprest izatea.

Partaide guztiak txanda aldatetara joatea garrantzitsua izango da azterketa-erentzat. Zergatik?

Ahobizien kasuan, astetik astera txanda aldatzea izango da. Txanda aldatzea horretan elkartuko ditugu txanda hastera doazen Ahobizien eta txanda bukatu berri duten Ahobizien. Batzuek beste pasako diete “erronkaren lekukoa” (gure kasuan Ahobizien txapak ordezkatzeko luke lekukoaren zeregina). Txanda aldatzea horrek beraz erronkaren karga sinboliko garrantzitsua du, eta erronkari forma soziala ematen dio. Bestetik, txandaketa hortaz baliatuko gara Ahobiziei hainbat datu eskatzeko, eta horrela “hizkuntza egoerari buruzko argazkiak” aterako ditugu, lehen ikerketaz esandakoa bergogoratu. Horregatik, Ahobizien konpromisoetako

konpromisoetako bat, eta bera da gure erronkak dakarren aldatetarik sakonetariko bat.

Erronka gaintu den ala ez zeren arabera baloratuko da?

Ahobizi batek erronka gaintuko du, baldin eta erronkaren astean, % 80an lortu badu beti euskaraz egitea euskaraz ulertzen dutenekin izan dituen harreman guztietan. Ordea, “Baietz 40 egun euskaraz” herri-erronka gaintu dugula esango dugu, baldin eta lortu badugu 300 Ahobizi hartan jardutea eta beren konpromisoa % 80an betetzea. Gehiago balira, nota askoz hobea litzateke. Eta gainera, 3.000 Belarriprestek izena ematea lortuko bagenu, orduan esango genuke erronka gaintuz gain nota bikainarekin gaintu dugula.

Zein ondorio espero dituzue? Beste herriren batera eramango al da ekimena?

Espero dugu euskararen erabilera handitzea herrian. Espero dugu elkarriketa asimetrikoen praktika soziala (non kide batek euskaraz egiten duen eta besteak erdaraz) euskaldunen ohitura bihurtzea. Espero dugu Belarriprest figuraren garrantzia finkatzea euskalgintzan. Guk, gure ekimenez, ez dugu gurea beste herritara eramango. Baina eskaini bai denei eskainiko diegu. Horregatik, guk egindako esperientzia ongi dokumentatu nahi dugu, nolabait, beste herriren batek gurearen antzera egin nahi izango balu, eduki dezan zeri heldu. Zalantzarik gabe, gure herriko erronka Lasarte-Oriatik soilik ez Euskal Herriko txoko askotatik begiratu izango da.

40 eguneko erronkan izena emateko, Txintxarriekin batera aurkitu duzun eskuorria bete eta Udal Kiroldegian, Villa Mirentxun, Manuel Lekuona Kultur Etxean, Ttakunen, Belarriprest ikurra jarrita daukaten dendetan edota herriko ikastetxe eta euskaltegietan utzi.

Animatu eta parte hartu!



Agustin Mujika

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?

Sentimendu ezberdinak sortzen zaizkit: Euskaraz gure artean gozatzeko eta plazaratzeko asteburu zoragarria da. Baita, satisfazio pertsonala Lasarte-Orian hainbeste euskaldun dagoela ikusterakoan. 40 urte pasatu dira euskara ikasten hasi nintzenetik, eta denbora honetan gauzak asko aldatu direla sumatzen dut, Maratoiak horren testigantza bermatzen dit. Nire kasuan ere, bizitzaren geldione magikoa da Maratoia. Orain dela 26 urte arrazoi ezberdinengatik Zaldibiara bizitzera joatea erabaki nuen, eta Maratoiak sortu nintzen herrira itzultzeko aukera paregabea eskaintzen dit. Oraindik jendea nigan pentsatzen duela jakiteak hunkitu egiten nau (ez da zaila baina!). Buruko ganbaran dudak aspaldiko kutxa irekitzen dit eta bihotzera jaitzi: Haurtzaroko txokoak, gaztetako lagunak, izandako lehenengo ikasleak, zenbait taberna goxoak, eta nola ez Okendoko palmondoa. Non dago? Haren inguruan lehengo dantza lotsatiak, musutxo ezkutua ematen ikasi nuen, beste askok bezala.



Rebeka Garzes

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?

12 urte nituen lehenengo Maratoia egin zenean eta orduan festa handi bat bezala bizitu nuen, baita hurrengoak ere, adin horrekin ez nuen pentsatzen erronka zaila edo erraza zen. Lan handia egin da herrian eta berriro festa bihurtu da, aldarrikapen leku, agendan apuntatzen dugun data kuttuna!

Zer suposatzen du Zortzikoteko kide izateak?

Zortzikoteko kide izatea loteria irabaztea bezala da, jende zoragarria ezagutzen duzu (zortzikotean bertan eta kanpo ere), barreak, nekea, kimika, salta eta dantza. Orain arte egin duguna ikusita, uste dut primeran iritsiko garela 40 orduak amaitzera eta 40 egunei hasiera ematera.

Nola irudikatzen dituzu 40 orduak?

Aurtengoak oraindik ez ditut irudikatzen. Ahobizi eta Belarripresten asuntua martxan jartzeko gogo badut. Aurten benetan interesgarria da erronka!



Esitxu Garmendia

Zer suposatzen du Zortzikoteko kide izateak?

Hasieran errespetu handia eta ardura sortzen zizkidan. Hilabete eskas geratzen da eta geroz eta gertuago ikusten dudak heinean beldur pixka ere ematen du... Erronka pertsonal handia da niretzat oholtza horretan 40 orduz jarraian dantzan, antzetzan edota aurkezle moduan ibiltzea... Gai izango ote naiz? Eskerrak inguruan Joxe Mari, Agus, Rebeka edo Enara ditugula gure artean! Beraiek errepikatzen badute eta gure ondoan baditugu errazagoa egingo zaidala pentsatu nahi dut. Orain arteko esperientzia polita izaten ari da orokorrean. Jendearekin harremanetan jarri eta proposamen desberdinak aurrera ateratzen saiatzea polita da. Orokorrean herriko jendea gauzak egiteko gogotsu agertzen da eta atsegina da horrelako prestutasuna agertzen duen jendearekin lanean aritzea. Denboraz justu ibiltzeak eta beharko litzatekeen denbora guztia ez eskaintzeak da okerreana eta kezkatzen nauena. Daukadan onena ematen saiatzen ari naiz. Eta erreserba batzuk ordurako gordetzen ere!



Joxe Mari Agirretxe

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?

Gorputza herria bada eta hizkuntza bihotza, orain dela 30 urte gure gorputza, gure herriak duen bihotza, euskaraz zein osasuna zuen neurtu nahi genuen. Euskaraz 40 orduz etengabe egiteko gai ginen ikusi nahi genuen. Sentitzen genituen taupadak urduritxoak ziren, ardurari eta kezkarri lotuak. Orduan jakin genuen baietz, bagenuela gorputza hizkuntzak aurrera egin zezan, bihotza bagenuelako eta taupaka ari zelako. Taupada urduritxo horiek hurrengoetan alaitasun bilakatu ziren, kezka alde batera utzita, gorputzaren osasuna frogatuta, alaitasuna eta momentu batzuetan euforia nagusituz. Gorputza osasuntsu dugu, bihotza taupaka ari zaigu modu indartsuan, eta nahi duguna da gure gorputzari ahalik eta etekin handiena atera etorkizunera begira jarritz. Benetako Maratoi bat korritu behar dugu 40 ordu baino 40 eguneko. Gure bihotzari luzerako taupadak eskaini, lasaitasun taupadak, konfiantza taupadak eta bizipoz taupadak. Geure gorputzak eta bihotzak, bat egin dezaten luzaroan, hasierako urduritasunik gabe eta geroko euforiarik gabe bizipoz lasai eta normalizatu.



Joxe Mari Azkonobieta

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?

Euskararen Maratoia modu dibertigarri baten bidez lasarteoriatar guztiak euskaraz hitz egitera bultzatzeko aitzakia da. Festa honen bidez herritarrek elkartu eta norberaren egunerokoan euskaraz jarraitzea animatzea da, euskara gure hizkuntza delako eta oso maite dugulako. Niretzat sorpresa handi bat izan da zortzikoterako aukeratua izatea eta oso harro nago, esperientzia ezin hobea izaten ari da. Lagun berriak ere egin ditut eta euren ondoan asko ikasten ari naiz.

Nola irudikatzen dituzu 40 orduak?

40 ordu horietan momentu batzuk onak eta beste batzuk hobeak izango ditugu! Uste dut ondo pasako dugula eta ondo pasaraziko diegula gerturatzaren diren guztiei.



Oihana Fu Otaegi

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?

Gure herriko ekintza berezi bat da. Lau urtetik behin egiten denez, ilusio handiz itxaroten duguna. Festa handi bat izateaz gain, herriarentzat euskaraz hitz egiteko erronka dakarrena.

Zer suposatzen du Zortzikoteko kide izateak?

Lotsa gutxi eduki behar da, oholtza gainean ordu asko igaro behar baitira. Maratoia bezalako kontu potolo batean sartua egoteak lan handia eskatzen duela konturatu naiz. Hala eta guztiz ere, oso gustora nago antolatzaileekin eta zortzikoteko nire kideekin elkarlanean.

Nola irudikatzen dituzu 40 orduak?

Txikitatik Maratoia oholtzaren behetik ikusi dudanez, oso argi daukat aurten erabat ezberdina izango dela niretzat. Badakit oso ondo pasako dudala eta inoiz ahaztuko ez ditudan 40 orduak izango direla.



Enara Iregi

Zer da zuretzat Euskararen Maratoia?

Euskararen maratoia erronka da, harrotasuna da, indarra, ilusioa, grina, kolorea eta aniztasuna. Lasarte-Oriarrak batzeko unea eta gunea da, ezberdintzen gaituena alde batera utzi eta denon artean batuz eta aberastuz. Harrotasunez kontatzen dut herritik kanpo lau urtez behin daukagun festa, eta ez da harrizkoa. Euskara erdigunean duen festa erraldoi hau mundiala da.

Zer suposatzen du Zortzikoteko kide izateak?

Hasieran beldurtu egiten zara, zalantzak sortzen zaizkizu: "Ondo egingo al dut? Gai izango ote naiz? Ez ote naiz txiki geratuko?". Baina, behin martxan jarrita eta taldean daukagun giroarekin kezka denak uxatu eta irrikaz hasten zara lanean, jendeak zuek espero duenak baino, ondo pasatzeak axola baitu. Gainera, txanpon beraren bi aldeak lantzeko terapia moduko bat da niretzat: batetik herriari eskaintzen diozunagatik, zuk hondar aletxoak jarritz; eta autosuperazioagatik bestetik, lorpen sakonago bat.



Mikel Izquierdo

Zer suposatzen du Zortzikoteko kide izateak?

Gure lagunei edo bikoteei galdetzen badiezu gu gutxiago ikustea esango dizute! Martxotik biltzen ari gara eta! Eskerrak beteroen lana errazten dutela... Ohorea da Zortzikotean egotea. Horrek esan nahi du norbaitek zure izena esan duela lan polita egingo duzula pentsatuz. Orain arteko esperientzia ezinhobea izaten ari da: taldean giro polita dago, harreman berriak sortzen dira, euskararekin konprometua areagotzen da, maratoia zer den azaltzen diezu ez dakitenei, 40 eguneko erronka...

Nola irudikatzen dituzu 40 orduak?

Eguzkia edo euria egin arren, jendez beteta, koloretsua eta energiagaz gainezka irudikatzen ditut. Maratoian dantza egiteko gogoz dago jende asko, ondo pasatzeko, nahiz eta askok lan mordoa egiten duten egun berean. "Zortzikote" asko daude atzean jaia aurrera eramateko. Auzolan horrek txispa ematen dio maratoiak daukan energiari!



LABURRAK.-

Ostadar SKTren Emakumezkoen Lurralde mailako taldeak irabaziz hasi du liga (1-2)

Ezin hobeto ekin dio Ostadarren emakumezko erregional taldeak ligari. Santo Tomas Lizeoaren aurka jokatu zuen igandean, etxetik kanpo, eta denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten, talde donostiarra 1-2 mendean hartuta. Golak Maialenek eta Saioak sartu zituzten.

Jardunaldiko gainontzeko emaitzak: Ostadar SKT 2-4 Anaitasuna (Ohorezko Erregionala); Asoleus 6-1 Texas Lasartearra eta Ostadar SKT 2-1 Danena (1go erregionala); Ostadar SKT 2-0 Allerru (Ohorezko Jubenila); Ostadar SKT 0-1 Urnieta (1go jubenila); Tolosa 2-0 Ostadar SKT (Ohorezko Kadetea).



Babyauto Zarautzen ligako lehen garaipena, Oviedoren aurkakoa (23-21)

Seniorren Ohorezko B mailan ari den Babyauto Zarautzek denboraldiko lehen garaipena poltsikoratu zuen pasa den larunbatean. Estreinako jardunaldian Uribealdearen aurka 17-13 galdu ostean, Phil Huxford eta Facundo Oriveren jokariak are gogo gehiagorekin irten ziren garaipenaren bila Zarauzko Asti zelaira. Ander eta Xabier Rekondo anaiek eta David Vegak hasieratik jokatu zuten; Julen Aristorena bigarren zatian irten zen.



Kanpoko taldeak, Real Oviedok, erakutsi zuen ez zela etorri arratsalde-pasa, eta gauzak oso zail jarri zizkien zarauztarrei. Pentsa: Babyauto Zarautzek neurketaren hondarean lortu zuen garaipena, Corey Simpson-ek gauzatutako transformazio bati esker. Azkenean, 23-21.

Hasi da herriko areto-futbol txapelketa

Iragan asteburuan jokatu zen aurtengo areto-futbol txapelketako lehenengo jardunaldia, emaitza hauekin: Reformas Lagunak 3-0 Also, Ibaros Latino 1-5 Kebab Taberna, Aita Amari 5-3 Viña del Mar, Urdaneta HK 3-2 Ilargi, Kattagorri Insausti 6-4 Trumoi eta Indaux 0-7 Txoko. Bestalde, 3. Nazional mailako Ostadar Antonio Aroztegiak 4-2 galdu zuen Otxartabe CDren kontra.

SASKIBALOIA.-

Gero eta gehiago dira

Ostadar SKTren saskibaloia atalak sei talde atera ditu aurtun

Gero eta herritar gehiagok jokatzen dute saskibaloian herrian. Bost talde edukizetik sei ateratzera pasa da Ostadar SKT, gazteentzako eskola antolatzeaz gain. Denboraldi berriari ilusioz ekin diote denek; talde batzuk asteburu honetan hasiko dira konpetitzen.

IÑIGO GONZALEZ

Denboraldiak joan eta etorri, Ostadar SKTren saskibaloia atalak beti dakartza berrikuntzak, kirol horrekiko zaletasuna gero eta handiagoa den seinale. Aurtengo sasoiari sei talde federatu atera dituzte, eta gaztetxoentzako eskola antolatu ere bai.

Taldeak hauek dira: Senior Probintzialeko 1go mailako emakumezkoak –talde berria da–, Senior Probintzialeko 3. mailako gizonezkoak, Errendimendu Juniorreko emakumezko bi talde –A1 ligan ari da bat; bestea, A2n–, Errendimendu Kadete kategorian bat eta Partizipazio Kadeteen besteak. Bi horiek emakumezkoenak dira baita ere.

Saskibaloia atalaren ardura dun Endika Marrahik nabarmentzen du “formazioko lau taldeetatik hiru” Errendimen-



Errendimenduko Kadeteak A1 ligan ari dira aurtun.

OSTADAR SKT

du mailan ariko direla aurtun: “Goraipatzekoa da”.

Sei izango dira taldeak, eta beste hainbeste entrenatzaileak: Ander Otaegi eta Beñat Eleicegui emakumezkoen seniorra eta Errendimendu Juniorrekin –A1 ligakoa– ari dira lanean. Jose Luis Alonsok senior gizonezkoa hartu du; Iraitz Rodriguez eta Gaizka Urreiztik A2 ligako Errendimendu Juniorra prestatuko dute, eta kadete mailako bi taldeak Endika Marrahiren esku daude.

Konpetizioan murgilduta, edo hastear

Sei taldeetako bik bi jardunaldi daramatzate honezkero. A1 ligako Errendimenduko Juniorrek galdu egin zuten iragan larunbatean, Zast Orio taldearen kantxan, 41-32. Garaipen eta porrot bana erdietsi dituzte

orain arte. Kadete Errendimenduko taldeak, berriz, bi partida jokatu eta biak galdu ditu. Kategoriari neurria hartu nahian dabilta Marrahik zuzendutako jokariak.

Asteburu honetan jarriko dira martxan beste hiru talde: Senior emakumezkoek Atletico San Sebastian taldea hartuko dute bihar, Kiroldegian, 16:00etan. Senior gizonezkoak ere etxean ariko dira, etzi, 11:00etan. A2 Errendimendu Junior taldea, berriz, Donostiara joango da bihar, Easorekin indarrak neurtzera. 18:00etan hasiko da partidua.

Eskolari dagokionez, orain arte 31 neska-mutil apuntatu dira. Izen-emate epea zabalik dago interesa dutenentzat, 100 euroren truke. Urriaren 5ean hasiko dira saioak, Michelingo kirol-gunean, 18:15etatik hasi eta 19:30era bitartean.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 1

Michelin, 10:00etan

Ostadar SKT - SANSE
Kadeteen Ohorezko maila,
3. jardunaldia.

Igartza, Beasain, 10:00etan

Beasain SD - Ostadar SKT
Infantilen Ohorezko maila,
1go jardunaldia.

Michelin, 12:00etan

Ostadar SKT - Ekintza KE
Jubenilen 1go maila,
3. jardunaldia.

Michelin, 15:30ean

Ostadar SKT - Intxaurdi KE
Emakumezkoen Lurralde maila,
2. jardunaldia.

Mojategi, Arrasate, 16:30ean

Mondragon CF - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila,
4. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean

Texas Lasartearra - Amara Berri KE
Erregionalen 1go maila, 3. jardunaldia.

Ubitarte, Andoain, 17:15ean

Euskalduna SD - Ostadar SKT
Erregionalen 1go maila, 3. jardunaldia.

Igandea 2

Michelin, 11:30ean
Ostadar SKT - Mundarro
Jubenilen Ohorezko maila, 3. jard.

ARETO-FUTBOLA

Herriko areto-futbol Txapelketa

Ostirala 30

Kirol gunea, 19:45ean
Txoko Taberna - Urdaneta HK
Kirol gunea, 20:45ean
Viña del Mar - Indaux

Harripila frontoia, Legorreta, 20:30ean

Bilkoin Legorreta - Cecilia Ostadar
Gipuzkoako 1go maila, 2. jardunaldia.

Kiroldegia, 20:55ean

ISU Leihoak - Tellatuberrri Zaldibi
Gipuzkoako 1go maila,
2. jardunaldia.

Herriko areto-futbol Txapelketa

Larunbata 1

Kirol gunea, 09:30ean
Ilargi Taberna - Kattagorri Insausti
Kirol gunea, 10:30ean
Kebab Taberna - Aita Amari Taberna
Kirol gunea, 11:30ean
Also - Ibaros Latino
Kirol gunea, 12:30ean
Izkiña - Reformas Lagunak

Kiroldegia, 18:00etan

Ostadar Antonio - Lagun Onak FS
3. Nazional Maila, 3. jardunaldia.

Igandea 2

Michelingo kirol gunea, 10:00etan
Lasarte Kafe Bar Ostadar - Goierri
Gipuzkoako jubenilen maila,
lagunarteko norgehiagoka.

PILOTA

Ostirala 30

Loidibarren pilotalekua, 20:00etan
Intza KE - Bergara
Seniorren 1go maila, 3. jardunaldia.

Larunbata 1

Loidibarren pilotalekua, 11:30ean
Intza KE - Tartaloetxe
Seniorren 3. maila, 3. jardunaldia.

SASKIBALOIA

Larunbata 1

Kiroldegia, 10:30ean
Ostadar SKT - Bera Bera
Errendimenduko kadeteak, 3. jard.

Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Atletico San Sebastian
Emakumezkoen senior probintziala,
1go maila, 1go jardunaldia.

Benta Berri, Donostia, 18:00etan

Easo - Ostadar SKT
Errendimendu juniorrak, A2 liga, 1go jard.

Don Bosco, Olereta, 20:00etan

Oiarso SKT - Ostadar SKT
Errendimenduko junior neska, A1 liga,
3. jardunaldia.

Igandea 2

Kiroldegia, 11:00etan
Ostadar SKT - Chicano Bulls
Gizonezkoen senior probintziala,
3. maila, 1go jardunaldia.

LASTERKETAK

Igandea 2

Donostia, 10:00etan
Herriko hainbat lasterkari '5 milia
buru osasunaren alde' proban ariko
dira. 8 km. ditu ibilbideak.


ERRUGBIA

Igandea 2

As Lagoas, Vigo, 12:00etan
Vigo RC - Babyauto Zarautz
Seniorren Ohorezko B maila,
3. jardunaldia.

Agenda

Igandea, 17:00etan eta 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxea



Zinema denboraldi hasiera

Igandean, 2016-2017 ikasturteko zinema saioen lehena izango da Manuel Lekuona kultur etxean. Etxeko txikiak arratsaldeko 17:00etan Ice Age famatuaren bosgarren emanaldia 'El gran cataclismo' ikusiko dute. Sarrera, 3,80 euro. Helduen atalean, berriz, 'Cuerpo de élite' filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

Nagusien Omenezko astea

BIYAK BAT EGOITZA

Larunbata

16:00etan, asteari hasiera emateko bandera igoera egin eta agurra dantzatu da.

18:00etan, bingo lehiaketa.

20:00etan, lehiaketetako sari banaketa.

ISLA PLAZA

Larunbata, 16:30ean

Toka, igela eta pote txapelketak jokatuko dira.

SAN PEDRO ELIZA

Igandea, 11:00etan

Meza nagusia, Biyak Bat elkarteko abesbatzak girotua. Ostean, kalejira.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 12:30ean

Amaia Gonzalez Caballero akademiako emanaldia.

MICHELINGO KIROL GUNEA

Igandea, 14:00etan

Lasarte-Oriako nagusiek bazkari gozoaz gozatuko dute. Omenaldia eta oroigarriak banatuko dituzte. Ostean, Ruby Berriak taldeak dantzaldia eskainiko du.

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata 1, 19:30ean

Orfeón Logroñes abesbatzaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Egitarau anitza aurkeztuko dute. Albo-ka Abesbatzak gonbidatutako taldea dugu.

Lasarte-Oria

Landaberri 50. Urteurrena

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, ostirala, 22:00etan

'Landaberri mende erdi' antzerkia taularatuko du ikasle-ohien talde batek. Sarrerak saioa hasi baino ordu bete lehenago egongo dira eskuragarri.

LANDABERRI BHI

Larunbata, 12:00etan

'Landaberri mende erdi' abestiaren bideoa grabatuko da. Ostean, Udal Musika Eskolako trikitilariak alaituko dituzte kaleak.

MICHELINGO KIROL GUNEA

Larunbata, 14:00etan

Bazkaria, emanaldi berezia eta Ttiriki

Ttarrakaren saioaz gozatu ahalko da. Tiketak salgai Landaberri ikastolako eraikinetan, osteguna 29a arte.

ANTONIO MERCERO ARETOA

Gaur, 17:30etik 20:00etara. Bihar, 11:00etatik 13:00etara.

50 urte hauetako argazki eta ikasleen eskulanak bildu dituzte 'Landaberri, oroimenaren basoa' erakusketan.

Aste Kulturala

OKENDO PLAZA

Gaur, ostirala

19:30ean, Asteaz zeharreko lehiaketen sari banaketa.

20:00etan, Manolo Solisen emanaldia.

23:00etan, Amigos del Sur taldearen emanaldia eta dantza herrikoa.

Larunbata

12:00etan, Bote txapelketa.

12:30ean, haur jolasak.

17:00etan, dantza herrikoa.

19:00etan, elkarteko Zambra, Gitanillas del Alba eta Duende dantza taldeen emanaldia

21:30ean, DJ Freddyren saioa.

Igandea

13:00etan, Xumela eta Semblante Rociero abesbatzen emanaldia.

13:30ean, bertso saioa Jon Maiaren eskutik.

14:30ean, Bazkari herrikoa, paella.

17:00etan, 'Tala y su banda' taldearen emanaldia, 'El Barrio' taldearen tributoa.

20:30ean, dantza herrikoa kultur astearen amaierara arte.

Herritarren txokoa

Neguko ordutegia kiroldegian

Neguko ordutegia dago indarrean herriko kirol instalazioetan.

Kiroldegiko guneak astelehenerdik ostiralera 7:00etatik 22:30era erabili ahal dira. Larunbatetan 9:00etatik 20:00etara dago irekia eta igandetan berriz, goizean 9:00etatik 13:00etara.

Michelingo Kirol guneari dagokionez, astelehenerdik ostiralera arratsalde egongo da irekia, 15:30etik 22:30era. Larunbatetan, berriz, egun osoz erabili ahal dira gune ezberdinak, 9:00etatik 20:00etara, eta igandetan goizez bakarrik 9:00etatik 13:00etara.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 26an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazena da eta odol falta dago!

Alboka Abesbatza

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak

herritarrak taldearen parte izatera gonbidatu nahi ditu. Horregatik entsegu batera hurbiltzeko animatzen ditu.

Entseguak Arantzazuko Ama eliza-aren azpiko lokalean dira astelehen eta ostegunetan 20:00etan. Abesbatzako kide izan nahi duten 15 eta 55 urte arteko herritarrek entseguetara gerturatu eta proba egin ahal dute "izan ere ez da zertan solfeorik jakin behar kantuan gurekin aritzeko".

Informazio gehiagorako 657 651 269 telefonora edota junta@albokaa-besbatza.com helbidera idatz daiteke.

Hemeroteka

Duela 1233 ale

Iraila hasieran, Donostiako Bandera jokatu zen bertan lasarteoriatar bat izan zen arraunean, Intza Fernandez. Baina honen aurretik izan dira herritarrak, baita Michelin trainerua ere. 1998ko irailaren 25ean Antonio Oliden arraunlari eta patroi ohiarekin solastu zen TXINTXARRI aldizkaria.


Besteak beste, txirindularitza utzi eta arraunean hasi zela aipatzen du. Lasarte-Michelingo garaiak ere ekarri zituen gogora. "1953. urtean, lehendabizi batekin, gero trainerilan eta azkenik traineruan".

Trainerua osatzeko arazorik izan ez zutela aipatzen du. "Gogoan dut hasiera hartan Lasarte-Oriako bi mutil hasi zirela. Beranduago beste batzuk ere sartu ziren: Arteagatarrak, Mercader anaiak, Jose Luis Lasarte...".

Gehienak lehorrekoak zirela azpimarratzen du eta arraun egiten berak irakatsi ziela. Gainera, ez zekiten igeri egiten. Entrenamenduak Ori ibaian, Pasaian edo Orion egiten zituztela adierazten du, baita Michelin enpresak erraztasun handiak ematen zizkiela ere.

Denbora gutxian maila ederra lortu eta Kontxako estropada bitan irabazi zuten. Herriak garaipen ostean oso harrera ona egin ziela gogoratzen du. "Inoiz ez zait ahaztuko Estatu Espainiarreko txapelketa irabazi ondoren egin ziguten harrera".

Arraun taldea nola desegin ere azaltzen zuen, besteak beste, "babesle-rik gabe trainerurik ezin da atera", azpimarratu zuen.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



Txartel Txokoko kideek Buruntzazpin prestatutako pintxoak hainbat herritarren arreta deitu zuen.

TXEMA VALLÉS

Sormena mokadu batean

Aste gastronomikoak harrera ona izan du

Lasarte-Oriako I. Aste Gastronomikoa martxan da. Gaur itxiko ditu ateak. Herriko lau jatetxe eta tabernek Martin Berasategi aukeratutako osagaitan oinarrituta haien sortze-lanak herritarren eskura jarri dituzte 'Plater gastronomikoa' ekimenean. 'Pintxo pote gastronomikoan' aldiz, beste tabernen lanaz gozatu ahal izan zen atzo.

TXINTXARRI

Hegaluzea, tomatea, antxoa eta piperrean oinarritutako pintxo eta platerak dastatu ahal izan dira astelehenean ostegunera hiru elkartetan eta atzo hainbat tabernetan.

Harrera ederra izan du ekimenak. Hainbat izan dira elkarrietara hurbildu ziren

herritarrak, baita pintxo potean pintxo bereziak eskatu dituzten pertsonak ere.

Nola prestatu

'Plater gastronomikoa' ekin-tzarekin hasi zen lehen Aste Gastronomikoa.

Yolanda tabernako kideek Intza elkarteko sukaldaria bere egin zuten astelehenean. Asteartean, Buruntzazpi

elkartean Txartel Txokoko kideak lan eta lan izan ziren eta asteazkenean, Santxo tabernako lagunen txanda izan zen Udaberri elkartean.

Elkarte batzuetan, herritarrek platera nola prestatzen zuten ikusi ahal izan zuten sukaldarian bertan eta ostean, hau dastatzeko tartea ere izan zuten.

Santxo eta Yolanda tabernako kideek azaldu zuten pintxo pote gastronomikoan plateraren aldaera izango zuten herritar guztien eskura.

Pintxoak

Aste Gastronomikoa osatzen duen bigarren ekintza atzokoa izan zen: pintxo pote gas-



III. Pintxo ibilbideko irabazleek haien lanak aurkeztu zizkieten herritarrei.

tronomikoa, herriko hogei bat tabernetan.

Herritarrek ohiko pintxo poteko jakiez gain, aste gastronomiko honetarako bereziki landutako pintxoak jateko aukera izan zuten.

Tabernek haien irudimena erakutsi zuten oinarritzko osagaien kolore eta forma ezberdinetako lanak aurkeztuz.

Azken eguna gaur

Baina pintxo eta plater berezi

hauek jateko aukera izango da gaur ere.

Aste gastronomikoari amaiera emango zaio bi ekin-tza ezberdinekin.

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Goiegi jatetxeko sukaldariak prestatutako plater gastronomikoa ezagutu eta gozatu ahaliko dute Udaberri elkartean izen eman duten herritarrek.

Honetaz gain, pintxo pote gastronomikoaren bigarren eguna ere dugu.



zerbitzu mistoak

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu




- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektriko
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma

Uistin Kalea z/g • Tel. 943 37 08 45 • Lasarte-Oria



ESKERRIK ASKO LASARTE-ORIA